

NEGOZIO IDEIA ETA BALIO PROPOSAMENA

1.1 NEGOZIO IDEIA

Gaur egun, **emakumeen segurtasuna** gero eta kezkarriagoa den gai bat da, bereziki gaueko orduetan. Datuek erakusten dute emakumeek arrisku handiagoa dutela hainbat mehatxu jasotzeko, eta hori benetako arazo bihurtu da. Gizonentzat ere lapurreta eta beste arrisku batzuk egon daitezke, baina emakumezkoek areago pairatzen dituzten arriskuak kontuan hartuta segurtasunaren beharrei erantzutea funtsezko ahalegina da. Horregatik, gure helburua segurtasuna eta erosotasuna hobetzeko soluzio berritzaile bat eskaintzea da. Leioako udalak, egia da, gaueko orduetan (Asteburuetan, 23:00etatik aurrera) autobus zerbitzu bat eskaintzen duela, baina zerbitzu hori mugatua da eta ez da erabiltzaile guztientzat egokia. Hori dela eta, gure proposamena da zerbitzu hobe, seguruagoa eta eraginkorragoa eskaintzea, erabiltzaileen beharrak kontuan hartuta.

Gure **zerbitzua autobus** batzuen bidez funtzionatzen du, eta erabiltzaileek **aplikazio** baten bidez eskura ahal izango dute. Aplikazioaren bidez, bezeroek zerbitzuaren informazioa kontsultatu, bidaiak erreserbatu eta segurtasun funtzioak aktibatu ahal izango dituzte. Aplikazioa erabiltzeko, **kuota finko** bat ordaindu beharko da, eta kuotaaren altuera erabiliko du zerbitzuaren erabilgarritasuna. Kuota altuagoek bidai gehiago eta zerbitzu pertsonalizatuagoak eskainiko dituzte.



Aplikazioaren funtzionalitate nagusiak:

1. **Geltoki nagusiak:** Zerbitzuaren helburua da, gaueko ordutegian, bezeroek ahalik eta gehien hurbildu ahal izatea etxera. Geltoki nagusiak ezarriko dira, baina jende kopuruaren arabera, aplikazioak **bertako lokalizazioa** kontuan hartuta egokitu egingo ditu, eta, hala behar izanez gero, **geltoki hurbilagoak** proposatuko ditu, denbora-tarteak ahalik eta laburrenak izateko. Erabiltzaileak geltokiak aukeratzeko aukera izango du, baita bere etxera hurbiltzeko aukera ere.
2. **Autobusaren erreserba sistema:** Erabiltzaileek aplikazioaren bidez autobusa hartu baino lehen erreserba egin beharko dute. Aplikazioak, jende kopuruaren arabera, **bidai pertsonalizatua** egingo du, eta **lehenetsi diren geltokiak** aukeratzeko ditu, denbora gehiegi pasa ez dadin. Horrela, aplikazioak une oro dabil bidaiak moldatzen jendearen eskakizunen arabera, beti ere ziatuz etxetik hurbilen utziz.
3. **Segurtasun funtzioa (SOS botoia):** Aplikazioak **SOS botoi bat** izango du, eta erabiltzaileak arriskuan sentituz gero, botoi hau aktibatuz, bere lokalizazioa eta mezu larrialdi bat automatikoki bidaliko ditu ertzain etxera. Funtzio hau, segurtasuna lehenesteko, funtsezko parte izango da; hots, erabiltzaileen babesa zaintzeko tresna indartsua.

Gure zerbitzua beste garraio zerbitzu batzuekiko desberdintzen da **segurtasunaren eta erabiltzaileen erosotasunaren aldetik**. Lehenik eta behin, **segurtasuna lehenesten dugu**; gure helburua da erabiltzaileak seguru eta babestuta sentitzea, eta horretarako, segurtasun funtzio espezifikoak integratu ditugu, hala nola SOS botoia, eta bidaiaren denbora-optimizazioa bermatzen duen sistema bat. Horrek erabiltzaileari lasaitasuna ematen dio eta



arrisku egoeretan erantzun azkarra eskaintzen du. Bestetik, gure **erabiltzailearen erosotasuna** errazten dugu, aplikazioaren bidez erabiltzaileek beren bidaiaren pertsonalizazioa kudeatzeko aukera izango dutelako, eta horrek gaueko ordutegietan aukera hobeak eskaintzen dizkie. Azkenik, **ingurune segurua eta funtzionala** eskaintzen dugu: autobus zerbitzuak, beti seguruak izango dira, eta aplikazioaren automatizatutako sistema eta erantzun azkarrak emango ditu larrialdi egoeretan. Horrela, gure proiektuaren bidez, **garraio publikoa, segurtasuna eta pertsonalizazioa uztartzen ditugu**, eta horrek gizonezko zein emakumezko erabiltzaileen beharrei erantzuten die, batez ere gaueko orduetan, **gainerako zerbitzuengandik bereiziz**.

1.2 BALIO PROPOSAMENA

Gure helburua **segurtasuna eta konfiantza** bermatzea da, arriskuan edo ezinegonean sentitzen diren pertsona guztientzat, bereziki emakumezkoentzat. Datuek argi erakusten dute emakumeak larrialdi egoera askotan kaltetuenak direla, eta horregatik, emakumezko gidarien eskaintza egitea proposatzen dugu. Horrela, emakumek, batez ere, seguru eta eroso senti ahal izango dira. Asmoa **ez** da inolako **generalizaziorik** egitea, ezta gizonei edo edozein talde zehatzi susmoak egotea ere. Garraioan arriskua edo ezinegona hainbat egoeretan sor daiteke, eta hori guztia kontuan hartuta, gure zerbitzua emakumezkoentzat bereziki bideratua egon arren, ez dugu inola ere epairik egin nahi.

Zerbitzu honek **gaueko ordutegia** du, gaueko **10etatik goizeko 6 arte** eskuragarri egon dadin, laguntza behar duen edonorentzat. Horrela, gure zerbitzuak konfiantza eta segurtasuna transmititu ditu, eta gizartean benetan behar den zerbitzu bat eskaintzeko prest gaudela adieraziko du. Ekimen honek, halaber, gure sinesmenari erantzuten dio: **garraio-zerbitzu bat guztien beharretara molda daiteke eta moldatu behar da**, salbuespenik gabe.

Ziur gaude garraio eredua aukera bakarrera mugatzeak, zenbait talderen behar espezifikoak kontuan hartu gabe, aukera galtzea dela komunitate solidarioago eta kide guztien errealitateekin kontzienteago bat eraikitzeko. **Emakume gidarien** aukera eskaintzeak, gainera soluzio bat eskaintzeaz gain, enpatia eta errespetuzko espazio bat sortzea du, eta horrek gure konpromisoa islatzen du gizarte justuago eta berdino baten alde. Gure autobuseko gidariak emakumeak izateak, ez du bakarrik segurtasuna eta konfiantza transmititzen; horrez gain, **emakumezko gidari** gehiago egotea sustatzen dugu, izan ere gaur egun, orotara, autobusetako edo taxietako gidariak gizonezkoak direlako.

Laburbilduz, gure proposamena ez da soilik garraio aukera bat; baizik eta pertsona bakoitzak askatasunez, konfiantzaz eta lasaitasunez mugitzeko aukera izateko erabaki bat. Gure zerbitzuak inklusibitatea, errespetua, ardura eta zaintza islatzen ditu, eta horrek funtsezko eginkizuna betetzen du komunitate hobe eta inklusiboago bat eraikitzeko. Proposamen hau antzeko enpresa eta zerbitzuetatik bereizten da, ez baitugu garraio estandar bat eskaintzen, baizik eta **ongizate kolektiboari** laguntzen dioten eta herritarren eskari zehatzari erantzuten dioten zerbitzu bat eskaintzen. Emakume gidarien gaueko garraio zerbitzu honek **urrats bat ematen du** pertsona guztientzako seguruago eta erosoago den ingurune baten bila, genero, ordutegi edo segurtasunerako behar zehatzak izan ala ez. Era berean, aplikazio bat integratzea aurrerapauso garrantzitsua da, eta teknologia erabiliz zerbitzua modernizatzen dugu, erabiltzaileei segurtasun eta erosotasun gehigarria eskaintzeko.